

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gizarte Politiketako Departamentuak 730.000 euroekin finantzatuko ditu baztertuta daudenen enplegua eskuratzeko aukerak handitzeko proiektuak

Adinekoen elkarte eta gizarte-integraziorako etxebizitzaren programan laguntzen ari diren erakundeentzako beste bi deialdi ere onetsi ditu.

Lunes, 03 de febrero de 2014

Gizarte Politiketako Departamentuak [diru-laguntzen deialdi bat](#) onetsi du, aldi berean gizartean baztertuta eta langabezian daudenen enplegua lortzeko aukerak handitzen dituzten proiektuetarako 730.819,93 euro emanda.

Deialdia Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariaren foru-aginduak arautzen du. [Gaur, otsailak 3](#), astelehena, argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Diru-laguntza jasotzen duten proiektuei 60.000 euroko gehienezko finantzazioa emango zaie.

Laguntzak eskatzeko epea datorren otsailaren 18an amaituko da, eta egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Nafarroan duten eta pertsonak gizarteratzea estatutu-takako helburuetako bat duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak. Eskerak Gizarte Politiketako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusian, Nafarroako Gobernuaren beste edozein [erregistrotan](#) edo 30/1992 Legean jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

Proiektuetako jarduerak enpleguaren bilaketa aktiboarekin, laneko bitartekaritzarekin, autoenplegurako aholkularitzarekin, enplegua sortzeko esperientziak bultzatzearekin, familiako eta laneko bizitzak bateratzearekin edo materialak eta informazio-sistemak prestatu eta hedatzearekin izan ahalko dute zerikusia.

Honako hauek ere finantzatuko dira: Oinarrizko Gizarte Zerbitzu edo Auzo-unitateetatik hurbildutako pertsonentzako ibilbide pertsonalizatuak, lanurreko prestakuntza egokitu edo okupazionala, enpresetako praktikak edo 2013an edo 2014an Gizarte Integraziorako Errenta jasotzen duten pertsonen aldi baterako kontratazioa, laneratzeko aukerak handitzen dituzten ohitura eta trebetasunak eskura ditzaten.

Deialdiaren oinarrien arabera, besteak beste, higiezinaren errentaren



Nafarroako Jauregia

eta erabileraren gastuak, materialak eta hornigaiak, teknikarien gastuak, ordaindutako praktiken haborokinak eta pertsona onuradunak kontratatzeako gastuak ordaintzeko emango da diru-laguntza.

Adinekoen elkarteak

Nafarroako Aldizkari Ofizialak, astelehen honetan, adinekoen alorreko gizarte-ekimenak antolatzen dituzten elkarteei zuzenduriko diru-laguntzen beste [deialdi](#) baten [berri eman du](#). 450.000 euroekin finantzatu dira harrera egiteko, informatzeko eta bideratzeko jarduerak, baita hedatzeko eta sentsibilizatzekoak ere.

Martxoaren 5ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea. Eskaerak Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzian, Nafarroako Gobernuaren beste edozein [erregistrotan](#) edo 30/1992 Legean jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

Irabazi-asmorik gabeko eta adinekoekin erlazionatutako eta adinekoei zuzenduriko jarduerak egitea helburu duten erakundeek parte hartu ahal izango dute. Ezingo dira deialdira aurkeztu adinekoen egoitzak. Langileak kontratatzearekin zein erakundearen egoitzaren funtzionamenduekin erlazionatutako gastuak ordaintzeko izango dira diru-laguntzak.

Gizarte-integraziorako etxebizitza

Azkenik, Nafarroako Aldizkari Ofizialak, astelehen honetan, etxebizitza duinik ez dutenei laguntzea helburu duen Gizarte Politiketako eta Sustapeneko departamentuetako gizarte-integraziorako etxebizitzaren programan elkarlanean ari diren erakundeentzako diru-laguntzen beste deialdi bat ere [argitaratu du](#).

Laguntzak 200.000 eurokoak izango dira, eta helburua euren etxeetatik kanporatu dituzten eta kalte larriak jasaten ari diren familiak [Nasuvinsa](#) enpresa publikoaren alokairuen programan sartzea errazten duten ekintzak finantzatzea da. Azken bost urteetan programa horretan sartu diren edo haren bitartez azken hiru urteetan etxebizitza eskuratu duten familiei arreta soziala emateko gastuak ere ordaintzeko izango da.

Deialdiaren oinarrien arabera, eskaera aurkezteko epea otsailaren 24ra arte izango da. Gizarte-integraziorako etxebizitzaren programako lankide gisa kalifikatuta dauden eta Gizarte Politiketako eta Sustapeneko departamentuekin kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmena sinatu duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek parte hartu ahal izango dute deialdian. Eskaerak Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusian, Nafarroako Gobernuaren beste edozein [erregistrotan](#) edo 30/1992 Legean jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

Besteak beste, teknikarien, lekualdatzeen, jarduera burutzeko beharrezkoak diren materialen eta hornigaien gastuak eta zeharkako gastuak (ez dira izango emandako zenbatekoaren % 10 baino gehiago) ordaintzeko izango dira diru-laguntzak.